

ZERBITZU TEKNIKOAK

Babesa 4.7 Euskadi proiektuaren ingurumen-inpaktuaren plan bat egitea

ERREFERENTZIAZKO TERMINOAK

Aurrekariak:

ACNURen Espainiako Batzordearen esparruan, **ACNUR Euskal Batzordearen** mandatua da ACNURen lanean laguntzea, eta, aldi berean, errefuxiatuen eta desplazatuen eskubideen gaineko ezagutza eta defentsa sustatzea justizia globalarekin konprometitua dagoen gizarte aktiboa suspertzeko. Alor horren barruan, **gizarte eraldaketarako hezkuntza** ekimenak bultzatzen ditugu, irakasleak eta etorkizuneko hezitzaileak prestatzearen aldeko apustua eginez, gizarte inklusibo eta solidarioak eraikitzeke funtsezko eragile izan daitezten.

Testuinguru horretan, **Babesa 4.7** programaren helburua etorkizuneko irakasleen konpromisoa eta sentsibilizazioa sustatzea da, zehazki, errefuxiatuen eskubideen defentsan. Horretarako, proiektuak asiloari eta babeslekuaren gaineko funtsezko kontzeptuei buruzko prestakuntza eskaintzen du, tresna didaktikoak eskaintzen ditu eta gizarte-gaitasuna bultzatzen du. Bere helburua da hezkuntza fakultateetako ikasleek gai horiek haien etorkizuneko praktika profesionalean integratzea. Ekimenaren abiapuntua da hezkuntza funtsezko zutabea dela justizia globalarekin konprometitutako herritartasuna eraikitzeke, irakasleek zeregin garrantzitsua baitute balioak eta ezagutzak transmititzeko garaian.

Babesa 4.7 Aktiboan programaren luzapen bat da, jardunean dauden irakasleei zuzendua. Beren ikastetxeetan proiektu komunitarioak garatzeko tresna didaktikoen kutxa bat eskaintzea da helburua. Aipatutako bi programen bitartez, errefuxiatuen giza eskubideekiko konpromisoa indartu nahi da, hezkuntzaren eta ekintza kolektiboa baliatuz.

Bi programek **Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren** babesa dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan burutzen diren fase desberdinak finantzatzen dituzte. Gainera, lankidetzak estua dugu **UPV/EHUko Hezkuntza Fakultateko** irakasleekin, gure ekintzen koherentzia eta egokitasun pedagogikoa bermatzeko.

Zerbitzuaren helburuak

Babesa 4.7 Euskadi proiektuaren zeharkako Ingurumen Plan Estrategikoa egitea (Aktiboan barne), ingurumen-hezkuntzako elementuak sartzen direla eta proiektuko ekintzen kudeaketa jasangarria egiten dela bermatuz.

Irismena eta entregatzekoak

Kontrataturako zerbitzu teknikoak hiru zatitan banaturako plan bat garatu beharko du:

- **Proiektuko jarduera bakoitzerako gutxienez ekintza jasangarri bat definitzea, inpaktu negatiboak arintzen direla ziurtatuz.** Ekintza bakoitza jarduera bakoitzaren testuinguru espezifikora egokitu beharko da, ingurumen jasangarritasuneko irizpideak txertatuz, hala nola hondakinen murrizketa, baliabideen erabilera eraginkorra eta komunitatean praktika

ekologikoak sustatzea. Gainera, proiektuko funtsezko eragileak ekintza horien inplementazioan inplikatzea bilatuko da.

- **Proiektuaren jarduera bakoitzerako jarraipen tresna bat sortzea, betetze adierazleekin.** Tresna horrek proiektuaren ingurumen-inpaktuaren etengabeko ebaluazioa erraztu beharko du, eta aldizkako berrikuspen-mekanismoak, neurketa-irizpide argiak eta hobetzeko prozedurak ezarri beharko ditu, ezarritako ingurumen-helburuak desbideratuz gero.
- **Babesa 4.7 Euskadi proiektuko klima-aldaketaren testuinguruetan lekualdatze behartuari buruzko prestakuntza-materialen zeharkako berrikuspena**, material horietan ingurumen-ikuspegia transbertsalizatzen lagunduko duten elementuak eta aukerak identifikatzeko.

Gainera, gutxienez sozializazio- eta aurkezpen-saio bat egingo da proiektuko teknikariekin eta boluntarioekin, lan-taldeek lineamenduak bereganatzen dituztela eta proiektuaren egunerokoan aplikatzen direla ziurtatzeko.

Espero diren produktuak

1. Babesa 4.7 Euskadi proiektuaren Ingurumen Plan Estrategikoaren dokumentua, honako hauek jasotzen dituenak:
 - Proiektuko jarduera bakoitzerako ekintza zehatzen definizioa, horien bideragarritasuna eta aplikagarritasuna bermatuz.
 - Jarraipenerako eta ebaluaziorako tresna, betetze adierazleekin.
2. Planan inplikatutako eragileekin sozializatzeko eta sistematizatzeko saioa.
3. B4.7 Euskadi gida didaktikoaren berrikuspen-txostena, ingurumen-ikuspegia zeharkakotasunerako gomendioekin.

Epeak

1. Produktua:

2025eko apirilaren 30erako prest

2. Produktua:

2025eko maiatzaren 31rako prest

Aurrekontua

Max. 2.400,00 € (BEZa barne)

Eskatutako profila

Hautaketa irizpideak:

Zerbitzu teknikoa hautatzeko prozesua norgehiagoka bidez egingo da, eta mugimendu ekologistari lotutako erakundeen proposamenak lehenetsiko dira. Irizpide hauek ebaluatuko dira:

- Esperientzia frogatua ingurumen-hezkuntzan eta proiektuen kudeaketa jasangarrian.
- Ingurumen-inpaktua arintzeko eta garapen jasangarrirako estrategiei buruzko ezagutza.
- Jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak sortzeko gaitasuna.
- Mugimendu ekologistako erakundeekiko lotura eta/edo ekonomia sozial eta iraunkorrean parte hartzea, GKEentzako edo gizarte-proiektuentzako diseinuan jakitea, euskara eta Euskadiko gizarte zibila ezagutzea.

Proposamenen jasotzea

Proposamenak **martxoaren 17ra** arte jasoko dira.

Proposamenak helbide elektronikoa honetara bidaliko dira: iratxe.gonzalezaspiazu@eacnur.org

Proposamenen edukia:

- Proposamen teknikoa eta metodologikoa.
- Lan-kronograma.
- Aurrekontu xehatua.
- Erakunde edo pertsona postulazaitzailearen CVA.